





BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Blinstick bezeroenga helarazteko, mota derberdinak erabiliko ditugu, lau bide bereziki. Inaugurazio bat egingo dugu, Blindstick aurkezteko eta pertsona famatuak ekarriko ditugu. Bigarrena, Zenta denda izango da Donostin aurkitu dezakeguna, desgaitasuna daukaten pertsonen bideratua dagoena. Hirugarrena, Mundo Relive aldizkarian, aldizkari hori ONCErena da orduan beraiekin kolaborazio bat egingo dugu beraiek gure produktua aldizkarian ezartzeko. Azkenik publizitatea egiteko irratian gure produktuari buruz hitz egingo dugu.


Lehenengo bidea hurrengoa da, guk egindako produktua inaugurazio batean aurkeztea da, han lortuko duguna gure produktua ezagutzea izango da eta baita ere publizitatea egitea, inaugurazio horretara pertsona gehiago etortzeko pertsonen ezagun askorekin hitz egigo dugu eta horrela gendea inauguraziotaz konturatu ahal izango da. Adibidez Abril Cols berak desgaitasuna daukan arreba bat daukalako eta mundu horretan oso sartua dagoelako, beste bat ONCE izango da gure kolaboratzaile oso garrantzitsu bat izango dena.

Bigarren bidea, gure produktua ezgaitasuna dituzten pertsonentzako denda berezietan jarriko dugu, denda horietan prezioa berezko prezioa izango da. Denda horietan beraien makil normalak, hau da, GPS gabekoak erostea ohituta dauden pertsonak bere makila normalak erostea joatean, hango langileak gure produktua erakutsi egingo dio eta horrela bere buruz ez badu ezer entzun, jakinarazi egingo dio. Bere lehenengo aldia bada produktua erosten duena, hilabete bat utzi egingo genioke produktua probatu ahal izateko eta baita ere aldizka ordaintzeko aukera emango genioke. Produktua etxera eramatea eskaintzen diogu, ala produktua internetetik eskatzea, guk daukagun webgunean. Gure webgunea BlindStick du izena. Gure produktu fisikoak Donostiko Zenta dendan salduko genuke, Errekalde hiribidean aurkitu dezakegu.

Gure webgunea: <https://blind-stick4.webnode.es/>



Hirugarren modua, itsuentzako aldizkarietan gure produktua aurkeztea da, zer den, nola doan, zein da bere prezioa... esplikatuko diogu. Aldizkari hori ONCEk sortua da eta bere izena Mundo Relieve da, la revista en braille. Oso garrantziatsua iruditzen zaigu ONCE izatea aldizkariaren arduraduna azkenean ONCEko langile gehienak ezgaitasunak dituztelako. Aldizkariak onura handia izango da publizitatea egin ahal izateko baita ere.



Azkenik laugarren bidea, irratia. Irrati famatuekin harremanetan jarriko ginateke adibidez Gaztean horrela euskal entzuleei iritsiko zen, Los 40 baita ere horrela entzule mota desberdin gehiagoei iritsi ahalko genuke. Harreman horietan saiatuko ginateke entrebistak egiten edo egun batzuetan ordu batzuk lortzen. Hor gure produktuari buruz hitz egingo dugu horrela aldizkariak irakurtzen ez dituzten pertsonak, gure produkturen berri edukiko dute. Aldizkariaren antzera publizitatea egiteko balioko du. Bi tokietan publizitatea egitea erabaki dugu, mundu guztiak ez dituelako aldizkariak irakurtzen, horregatik bide desberdinak daudenez persona gehiagoengana iritsi ahal izango da gure produktua.